

## EUROPAKO UNIBERTSITATE INSTITUTUAN (EUI) "SALVADOR DE MADARIAGA" DOKTOREGO AURREKO KONTRATUAK GAUZATZEKO LAGUNTZAK

### **Deialdiaren helburua:**

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateetako Estatu Idazkaritzak deialdi bat iragarri du, 2016an 12 diru laguntza emateko "Salvador de Madariaga" programako doktoreak Europako Unibertsitate Institutuan (EUI) trebatzeko.

### **Arloak:**

Giza eta Gizarte Zientziak, Historia, Zuzenbidea, Ekonomia, eta Politika eta Gizarte Zientziak. Gomendatzen da [deialdiaren](#) 14.2 artikulua kontsultatzea, jakiteko EUIk zein arlo eta diziplina zehatzetan zuzendu eta gainbegira dezakeen tesia.

### **Kontratuen iraupena:**

Laguntzak gehienez ere lau urterako izango dira. Kontratuek 12 hilabete iraungo dute hasieran, eta urtero luzatu ahal izango dira.

Laguntza jasotzen dutenak 2016ko irailaren 1etik aurrera hasiko dira lanean.

### **Diru laguntzen zenbatekoa:**

Lehen bi urteetan, onuradunak 1.400 gordin jasoko ditu hilean, eta 1.500 euro gordin hirugarren eta laugarren urtean. Horrez gain, urtero aparteko bi ordainsari jasoko ditu.

Era berean, bidaiarako diru laguntza bat emango zaio lehen urterako, eta beste bat hirugarrenerako, bakoitza 700 eurokoa.

### **Eskaerak aurkezteko epea:**

**2016ko urtarrilaren 31ko 14:00etara arte.**

### **Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:**

- Betebehar akademikoak:** lizentziaturako, graduako, masterreko edo antzeko titulu bat izan behar dute, arlo hauetakoa: zuzenbidea, ekonomia-enpresa, politika-soziologia edo giza zientziak. Masterraren azken urtea egiten ari diren ikasleak edo gehienez ere ikasturte akademiko bati dagozkion kredituak egiteko dituztenak ere aurkeztu ahal izango dira. Pertsona horiek 2016ko uztailearen 10a baino lehen izan beharko dute dagokien titulua.
- Ikasketen amaiera data eta adina:** eskatzaileek 2007ko urtarrilaren 1a baino geroago eduki behar dituzte amaituta ikasketak, eta 30 urte baino gutxiago izan behar dituzte EUIin hasten diren unean. Data hori 2002ra luza daiteke, baldin eta eskatzailea seme-alabak zaintzen aritu bada 2002ko urtarrilaren 1aren eta 2007ko urtarrilaren 1aren artean.
- Bizileku baimena:** EBko beste herrialde bateko bizilagunek Espainian bizitzeko baimena izan behar dute. EBtik kanpoko atzerritarrek AIZ izan behar dute eskaerak aurkezteko eperako.
- Hizkuntzak:** ingeleseko C1 maila egiaztatu beharko da.

**Baztertuak:**

Honako hauek ezingo dute deialdian parte hartu:

- a. Doktore titulua dutenek edo titulazio hori laguntza eman aurretik edo EUIn hasi aurretik lortzen dutenek.
- b. b) Aldez aurretik ikertzaileak trebatzeko laguntzaren bat (FPU, FPI eta antzekoak) jaso dutenek 23 hilabetez baino gehiagoz, erakunde publiko edo pribatu batek emana, izan Espainiakoa (UPV/EHUko deialdiak, Eusko Jaurlaritzak, etab.), Europakoa edo beste herrialde batekoa.

**Eskarien aurkezpena:**

Eskariak gaztelaniaz beteko dira osorik, MECDEk bere [egoitza elektronikoan](#) eskura jarriko dituen formularioetan. Horrez gain, eskaria [EUI](#)ren formularioetan ere bete beharko da.

Eskaria betetakoan, eskatzaileak sinatu egin beharko du NAN elektronikoaren bidez, administrazio publikoek aitortutako ziurtagiri elektronikoaren bidez edo kode itunduen bidez (kodeak egoitza elektronikoan erregistratzean emango zaizkie eskatzaileei, sinadura elektronikorik ez baldin badute).

**GARRANTZITSUA:** Eskaria ez bada MECDEn edo EUIn erregistratzen, baztertu egingo da.

**Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

- a. Hautagaiaren CVa (gehienez ere 1.000 hitz).
- b. Doktorego tesia jasotzen duen prestakuntza proiektuaren memoria (gehienez ere 3.000 hitz).
- c. Unibertsitate ikasketak egin dituen erakunde akademikoko irakasleen edo zuzendarien bi aurkezpen gutun.
- d. Ziurtagiri akademiko pertsonala.
- e. Ingelesaren gaitasun agiria.

**MECDEkin harremanetan jartzeko:**

Telefono zenbakia: 910 837 937

E-maila: [becas.iue@mece.es](mailto:becas.iue@mece.es)

**Informazio gehiago:**

<https://sede.educacion.gob.es/catalogo-tramites/profesores/formacion/universitarios.html>